

BILBOK EUROPA OSOKO UDALERRIAK HARTUKO DITU ELKARREKIN TOKIKO BERDINTASUN, INKLUSIO ETA ANIZTASUN POLITIKEN ETORKIZUNA DISEINATZEKO

- Bilboko Udalak eta EUDELeK Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR) hartuko dute ekainaren 11tik 13ra. Bertan, 500 alkate, tokiko zein eskualdeko lider, Europako entitate eta nazioarteko erakunde bilduko dira
- 40 herrialde baino gehiagoko ordezkariak etorriko dira, gehienak Europatik, baina beste kontinente batzuetatik ere bai, Amerika, Afrika eta Asiatik, esaterako Ordezkaritzarik anitzenak Alemania, Suedia, Belgika, Frantzia eta Finlandiatik etorriko dira, berdintasun zein gizarte-ongizatearen politketan aurreratuenak diren horietatik, alegia
- Bilboko konferentzia Europako etorkizunari buruzko eztabaidaren erdigunean dago, eta Europako gizarte-paisaia eraldatzeko mugarri berri bat markatzea du xede, herritarrengandik hurbilen dauden eta pertsonei zuzentzen zaizkien politketatik abiatuta
- Hiru gaiak uztartzea izango da ekarpenik berritzaileena. Horrela, pertsona guztientzako berdintasunezko askotariko udalerri inklusiboagoak garatuko dira, desberdintasunetatik harago Europako hiru balio nuklearrak gurutzatu behar dira, ezinbestekoak baitira ongizatean, bizikidetzan eta gizarte-kohesioan aurrera egiteko
- Programak 33 saio, mahai-inguru eta tailer izango ditu, paraleloan, eta Europako herrien artean esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko aukera bikaina izango da. Gainera, kongresuko saio guztien erdia hartuko dituzte euskal esperientziek.
- Iñigo Urkullu lehendakariak hilaren 11n, astelehena, inauguratuko du konferentzia. Orduan, Rigoberta Menchú Bakearen Nobel saridunaren hitzaldia antolatuko da. Amaitzeko, ekainaren 13an, konferentziako ondorioei buruzko dokumentua aurkeztuko da

*Bilbon, 2018ko ekainaren 1ean. Juan Mari Aburto Bilboko alkateak, Imanol Landa EUDELeko elkarteburuak eta Frédéric Vallier CMReko idazkari nagusiak, hau da, hiru antolatzaileek, Europako udalerrien eta eskualdeen hurrengo konferentziaren saioen programa eta helburuak aurkeztu dituzte gaur goizean, udaletxeko Areto Arabiarrean. Konferentzia Bilboko Euskalduna Jauregian egingo da ekainaren 11tik 13ra, eta “**Berdintasuna, Aniztasuna eta Inklusioa. Desberdintasunek batzen gaituzte!**” izango du izenburu.*

Juan Mari Aburto Bilboko alkateak konferentzia Bilbon egin izanaren inguruko balorazioa egin du: *“Aukera paregabea da nazioartean hiri ireki, konprometitu, kohesionatu eta solidario gisa gure lekua lortzen jarraitzeko, hala baikara eta gero eta gehiago izaten jarraitu nahi dugu. Desberdintasunek mesede egiten gaituzte, hobeagoak izan gaitezen, indartsuagoak. Aniztasunaren alde egin behar da apustu, eta kudeatu. Ez bakarrik erakundeetan eta gizarte zibilean, baita enpresaren eremuan ere. Enpresa ezberdinenak, gizartearekiko ardura dutenak, lehiakorrenak izaten dira, hau da, balio gehien sortzen dutenak.”*

Juan Mari Aburtok, gainera, hauxe nabarmendu nahi izan du: *“Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa funtsezko balioak dira Europako udalerri eta eskualdeen artean Europa hobeago bat eraikitzeko, bidezkoagoa, inklusiboagoa eta gizatiarragoa. Hain zuzen ere, horixe da Bilbon nahi duguna: gizarte hobeago bat eraikitzen laguntzeko beharrezkoak diren balioak eta tresnak garatzen jarraitzea”,* gehitu du.

Imanol Landa EUDELeko elkarteburuak honako hau nabarmendu du: *“Bilboko 2018ko konferentzia aukera aparta da Europako udalerriok gure esperientziak eta jardunbide egokiak partekatzeko, eta ideia berritzaileak geureganatzeko elkarrekin berdintasunerako, inklusiorako eta aniztasunerako politikak lortze aldera, European komunak diren irizpideekin.”*

Lortutakoaren arrakastari dagokionez, **Imanol Landak** udalerrietako elkarteetako lanaren garrantzia nabarmendu du: *“funtsezko eragileak dira sarean lan egitea errazteko eta udalen artean irtenbide bateratuak bilatzeko orduan, eta tokiko errealitate desberdinetik herritar guztien bizi-kalitatean eta ongizatean aurrera egiteko helburua partekatzen dute”.*

Frédéric Vallier Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua **CEMRko idazkariak** hauxe azaldu du: *“CMREk berdintasunean, aniztasunean eta inklusioan duen eginkizuna funtsezkoa da. Gaur egun, 1.700 udalerri eta eskualde baino gehiago konprometitu dira bidezkoagoak diren gizarteak lortzeko gure Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunerako Europako Gutunaren bidez. Alabaina, komunikabideetan gogorarazten digutenez, bide luzea dugu egiteko pertsona guztiak benetan berdinak diren gizarteak lortzeko, generoa, etnia, sexu-orientazioa edo desgaitasuna gorabehera.*

Honekin lotuta, **Frédéric Vallier** azpimarratu nahi izan du ekitaldiaren helburua: *“Konferentziarekin ziurtatu nahi dugu tokiko politikak giza eskubideen errespetuan oinarritzen direla, garapen jasangarriko helburuekin bat. Mundua aldatzen ari da. Gure herritarrentzat aldaketak merezi izatea lortu behar dugu”.*

CMREk, Bilboko Udalak eta EUDELek nazioarteko hitzaldi estimulatzaile eta irakasgarri bat antolatu nahi dute, non Europako udalerrien ordezkariak handi eta heterogeneoa bilduko den. Europako 40 herrialde baino gehiagoko eta munduko beste toki batzuetako (Amerika, Afrika edo Asia) 500 parte hartzaile eta iristea espero da: tokiko zein eskualdeko ordezkari hautetsiak, Europako erakundeak, estatu-gobernuak, akademiaren munduko pertsonak eta konferentziaren gaiaren inguruan lan egiten duten gizarte zibileko *partner* direlakoak.

Udalerriak, gizarte-prozesuen eraldaketa sortu eta barne hartzeko duten gaitasuna kontuan hartuta, demografia-, gizarte- eta jarrera-aldaketen nukleoak dira. Inoiz baino gehiago sortzen ari dira orain, sormena eta aukerak sustatzeko espazio gisa.

Konferentzian tokiko gobernuak berdintasun, inklusio eta aniztasunaren alorrean ezartzen ari diren ekintzak azalduko dira, bai eta nola “gurutza” daitezkeen herritar guztien bizi-kalitateari eta ongizateari mesede egiteko, euskal udalerrientzako eta Europa osoko udalerrientzako **erronka partekatua** dena.

Konferentziaren programa hiru egunekoa izango da eta, guztira, **33 saio** eskainiko dira. Horietako asko paraleloan egingo dira, hala nola hausnartzeko eta eztabaidatzeko mahai-inguruak, jardunbide egokien tailerrak eta hiria ezagutzeko kanpoko bisitak, Bilboko Udalak eta tokiko entitate eta eragileek lekuan bertan nola lan egiten duten ikusteko.

BILBO EGOITZA GISA HAUTATZEKO ARRAZOIAK

Lau urtez behingo azken hitzaldia Erroman (Italia) egin zen 2014. urtean, Europar Batasuneko Kontseiluaren presidentetza Italiak zuenean. Bilbok Europako Udak eta Eskualdeen Kontseiluko (CEMR) kide gisa hartuko du erreleboa, EUDLEk proposatu ondoren.

Bilbo izendatu dute, CMREk oso ondo baloratu baitu hirian zein euskal udalerriz guztietan garatzen ari diren eginkizun eraginkorra, pilotutako esperientzia eta erakutsi duten konpromiso politikoa.

Tokiko gobernuen konpromisoak eta erakunde zein gizarte-eragileen arteko lankidetzak aurrerapen garrantzitsuak bultzatu dituzte berdintasuneko, inklusioko eta aniztasuneko politika publikoetan, eta **maila anitzeko gobernantzaren euskal esparrua** erreferente izango da European.

KONFERENTZIAREN IKUSPUNTUA, HELBURUAK ETA GAIAK

- Mundu osoan, baina baita European ere, **pertsonak** gero **ezberdinagoak** dira eta **inoiz baino konektatuago daude**. Pasaia demografiko eta politiko berrien ondorioz, **errealitate berriei** egin behar zaie aurre, desberdintasun ezari, bereizkeria eta gizarte-bazterkeriari, esaterako.
- **Berdintasuna, aniztasuna eta inklusioa** ezinbestekoak dira erkidego erakargarriak garatzeko eta herritar guzti-guztien bizi-kalitatea eta ongizatea hobetzeko.

Hauxe da CMREren konferentziaren asmoa:

- Berdintasunaren aldeko askotariko gizarte inklusiboek proposatzen dituzten **erronkak** **ea aukerak azaltzea** tokiko mailan erabakiak hartzen dituzten pertsonen eta herritarren.

- Europako gizarte-paisaiaren eraldaketari buruzko **ideia eta esperientzia berritzaileak** jorratzea, eta honako **GAI** hauek barne hartzea:
parte-hartze politikoa eta espazio publikoetako segurtasuna, giza eskubideak, bereizkeriaren/askotariko bereizkeriaren aurka borrokatzea, NBEren garapen jasangarrirako helburuen Agenda 2030, immigranteak gizarteratzea, zerbitzu publikoak eta kudeaketa, enplegua, edo parte hartzeko demokrazia eta gobernu irekia.
- **Arreta berrezia jarriko da** tokiko bizitzan emakumeek eta gizonek **berdintasuna** edukitzeari eta **CMREk** egindako **Berdintasunerako Europako Gutunari** (2006), orain arte Europako 35 herrialdetako 1.700 autoritate baino gehiago sinatu dutena.

EUSKAL ESPERIENTZIAK ETA UNE GARRANTZITSUAK

ASTELEHENA 06/11

- **09.30. Zuzendaritza Batzordearen Bilera.** Konferentziaren esparruan, CMREk erakundearen erabakitze organo gorenaren bilera antolatuko du. Tokiko eta eskualdeko 175 hautetsi egongo dira, besteak beste, **EUDELeko elkarteburua.**
- **16.00. Inaugurazioa, Iñigo Urkullu lehendakaria**
Juan Mari Aburtok, Bilboko Alkateak, **Stefano Bonaccinek**, CMREko Presidenteak, **Imanol Landa**, EUDEL-eko elkarteburuak, eta **Abel Caballerok**, FEMP-eko presidenteak, ongietorria emateko adierazpenak egingo dituzte.
- **16.30. Rigoberta Menchú** Konferentziaren helburuak azalduko ditu hitzaldi inspiratzaile batean. 1992. urtean Bakearen Nobel Saria irabazi zuen eta UNESCOren Borondate Onaren enbaxadorea da, feminista eta aktibista, giza eskubideen aldekoa.
 Europako erakundeen mahai-inguruaren ostean, **Beatriz Artolazabal** Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako sailburuak **maila anitzeko gobernantzaren euskal esparrua** aurkeztuko du.

ASTEARTEA 06/12

Euskal esperientziak Bigarren egunean, ekainaren 12an, euskal udalerrien ekimenak eta esperientziak aurkeztuko dituzte; izan ere, konferentziako **jardunbide egokien** multzo handienetako bat da, eta ia programako saioen erdia barne hartzen ditu (33tik 15).

- **“Basqueskola”** euskal alkate eta zinegotzien sarea (parte-hartzea, politika, BOTEREA); topaketa Rigoberta Menchúrekin eta Europa zein Afrikako beste emakume hautetsi batzuekin.
- **Gobernantza Onaren Europako Zigilua** (demokrazia berritzailea eta gobernu irekia)
- **Bilbo ‘adinekoekin eta hurrekin adeitsua den hiria’** (Aniztasuna)
- **‘Intercultural Cities’** / Kulturenarteko Hirien Europako Sarea (ekitaldi paraleloa)
- **Getxo “Zurumurruren aurkako udalerrien proiektua” + FEKOOR** (hub SAREAK).

- **EUDEL-Barakaldo “Immigranteentzako teleitzulpen sistema”** (hub immigranteak gizarteratzea)
- **EUDEL-Emakunde ‘Berdinsarea’** (hub emakumeen aurkako indarkeria)
- **EUDEL-Emakunde “Genero-eraginaren ebaluazioa”** (hub genero-ikuspegia)
- **Emakunde ‘Gizonduz ekimena’** (hub gizonak eta genero-berdintasun)
- **Gasteiz ‘Genero Berdintasunerako IV. Plana’** (hub askotariko bereizkeria)
- **Foru-aldundiak ‘Berdinbidean’** (hub berdintasuna udalerri txikietan)
- **Iruña ‘Generoko ekintza-plana’** (hub emakumeen aurkako indarkeria)
- **Sareen Sarea “Tokiko aliantzak lan-merkatuko inklusioa hobea izan dadin”** (kanpoko, Ellacuría fundazioan)
- **CGLU Kultura Batzordea ‘Integrazioa eta aniztasuna kulturaren bitartez’** (kanpoko, Azkuna Zentroan)

ASTEAZKENA 06/13:

Amaiera eta ondorioen dokumentua. Europako erakundeen mahai-ingurua egin ostean, ondorioen dokumentua aurkeztuko da. Bertan, gure gizarteak modu jasangarrian eraldatzeko lagungarriak izan daitezkeen **ideiak, proposamenak eta konpromisoak** plazaratuko dira, gizarte parekideagoak, anitzagoak eta inklusiboagoak eginez.

Ondorioei dagokienez, EUDELeko ordezkaria den eta 2016. urtetik CMREko Berdintasun Batzordeko burua den **Ibon Uribek lekukoa utziko dio Udalerrien Suediako Elkartearen ordezkariari.**

SAIOEN EGITURA

- **2 osoko bilkura:** hiru gai nagusiak, konferentziak, eztabaida eta ondorioak aurkeztuko dira. (2-3 ordu bakoitza)
- **5 saio paralelo:** ohiko eztabaidak, solasaldiak aurkezpenekin, parte-hartzaileen artean partekatzea (1,5 - 2 ordu).
- **Proiektuen eta jardunbide egokien 20 hub.** Tokiko esperientziak, proiektuak eta ekimenak aurkeztu eta partekatzeko mahai-inguruak (**1,5 eta 2 ordu**)
- **3 tailer «World Café»,** tokiko eremuan gauzatzen ari diren politikak, proiektuak eta metodologiak eztabaidatzeko (1,5 eta 2 ordu).
- **Kanpoko 3 saio hirian:** harreman zuzena eskainiko dute bazterkeria- edo bereizkeria-arriskuan dauden herritarrekin batera egunero lan egiten duten zentroekin. Saio horiei esker, parte-hartzaileek **esperientzia praktikoa** izango dute, eta Bilboko Udalak berdintasun, aniztasun eta inklusioaren alde egiteko eta sustatzeko modu zehatzak ikusiko dituzte.

UDALERRIEN ARTEKO LOTURAREN SINBOLOA

Bilbo Europako udalerri eta eskualdeen Konferentzia garrantzitsuaren egoitza bihurtzeko hitzarmena CMREren Zuzendaritza Batzordeak sinatu zen **Maastricht-en, 2016ko abenduaren 12an**, Europar Batasunaren Tratatuaren 25. urteurrenaren egunean, hain zuzen ere.

Europako Udal eta Eskualdeen Kontseilua (CEMR) Europako tokiko, lurraldeetako eta eskualdeko gobernuen ahotsa da. Erakundea Europako Kontseiluaren mende dago, eta 150.000 autoritate publiko baino gehiago ordezkatzeko ditu. Horietatik, **130.000 tokiko gobernuak** dira, eta 41 herrialde desberdinetako 62 elkartetan biltzen dira. EUDEL (Euskadiko Udalen Elkartea) erakunde horien artean dago, eta Konferentziaren antolatzaileetako bat da Bilboko Udalarekin eta CMRErekin batera.

CMRE-ko presidentea Stefano Bonaccini da, Italiako Emilia-Romaña lurraldeko presidentea dena.

CMREk, besteak beste, tokiko interesak ordezkatzeko ditu EBko erakundeetan, eta hirien, lurraldeen eta eskualdeen izenean Europako legerian eragina izateko egiten du lan. Aldi berean, esperientziak eta praktikak partekatzeko plataforma bat ematen die kide, eragile eta entitate laguntzaileei.

Hementxe duzu programa osoa:

www.cemrbilbao2018.eu



[#cemrbilbao2018](https://twitter.com/cemrbilbao2018)